

BEZERO KANALAK

Gorotza bertan jasotzen dugunez eta energia bertan sortzen dugunez, bertako energia bat da eta bertako jendeak erabiltzeko aukera izango du. Gure zerbitzua gertukoa eta pertsonalizatua izango da; energia gure ingurunekeo jendearen artean salduko dugunez, ingurune txikietan zerbitzu pertsonalizatua emango dugu. Horretarako herri bakoitzean konferentzia eta hitzaldi desberdinak antolatuko ditugu. Aurkezpen eta tailer desberdinen bitartez, kaleko jendeari gure proiektua gerturatuko diogu eta dituzten zalantzak argituko ditugu; gertutasuna senti dezaten.

Hitzaldiak jendeari gerturatzeko erreminta baliagarria izan baliteke ere, sarean gure lekua hartzea beharrezkoa da; ahalik eta merkatuan errazago lekua hartzeko. Horretarako web-orri(Kontratatzeko/Ordaintzeko) bat sortuko dugu: bertan gure produktuaren informazio guztia aurkeztuko dugu eta gainera posta-elektroniko bat sortuko dugu. Edonork gurekin kontaktuan jartzeko aukera izango du bide honetatik.

Gure zerbitzua kontratatu nahi izanez gero edo arazoren bat izanez gero, gure web-orrialdean agiri dauden posta elektronikora mezu bat bidali edo telefonora deitzearekin nahikoa izango litzateke. Bezeroen arreta 24 ordukoa izango litzateke.

